

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuaren **funsezko baliabideak** honako hauek izango dira.

Lehenik eta behin, **baliabide fisikoen** aldetik, gure kurtso amaierako proiektua gauzatu eta prestatzeko Lazkaoko zineko gela bat eskatu diogu udaletxeari. Bestetik, udaletxeak bertako bulego txiki bat jarriko digu eskuragarri eta hori, gure kontuak, izen emateak, gatazken kudeaketa, erabiltzaile, hauen familia zein elkarteekin bilerak egiteko erabiliko dugu.

Bestalde, espazioa egokitzeko erabiliko dugun materiala, bazkideon artean erosiko dugun furgoneta baten bidez garraiatuko dugu. Horrekin batera, beharrezkoak izango diren materialak ere erosiko ditugu, baina honakoa, bezeroen kuotarekin ordainduko dugu; honekin, familiek ordaintzen duten kuotaren zati bat dinamikak aurrera eramateko materialetan gastatuko dugula adierazi nahi dugu.

Kurtso amaierako antzerkia errazago irudikatzeko ordea, mozorroak beharko ditugu, baina horrek ez digu gasturik eskatzen, arropa ezberdinei bigarren erabilera bat ematea baita gure nahia. Hori aurrera eramateko, familia bakoitzak etxetik nahi duena ekarriko du, borondatez eta familiek ekarritako arropaz gain, San Benito Ikastolako zapi, mozorro zein aproposak iruditzen zaizkigun materialak ere erabiliko ditugu.

Mozorroez gain, gure zerbitzuaren beste gastu bat kamera izango da. Hau, sare sozialetara argazkiak igotzeko erabilgarria izango zaigu; azken batean, kamera honek gure proiektua gizarterateratzeko balioko du, inklusioari bidea eginez.

Gure zerbitzua, Goierrialdean bizi diren eta Aniztasun Funtzionala duten pertsonen zuzendua egongo denez, familia hauen garraioa erraztuko digun minibus egokitu bat erabiliko dugu. Honakoa ere, bazkideen artean ordainduko dugu, kurtsoari hasiera eman baino lehen.

Azkenik, San Benito ikastolakin hitz egin ondoren, behar dugunean, motrizitatea lantzeko materiala utziko digula adostu dugu.

Baliabide intelektualei dagokionez, gure enpresaren izenak esaten duen moduan, Bidelagun da gure Dantza eta Antzerki tailerraren izena, eta hortik dator gure logoaren sorrera; azken batean, marka bat sortuko dugu. Bestalde, erabiltzaile bakoitzaren garapen indibiduala jarraitzeko, exceleko orriak eta errubrikak erabiliko ditugu eta azkenik, merkaturatzeko eta bezeroekin harremantzeko web orrialde bat sortuko dugu, non bertan, enpresaren posta elektronikoa argitaratuko dugun.

Giza baliabideei dagokienez, 4 langileen artean funtzioak banatuko ditugu. Beraz, funtzio horien artean kamerarekin aditua, sare sozialetaz arduratuko den pertsona (Instagram, Facebook, web orria...), minibus eta furgoneta gidaria, familia eta erakundeekin harremanduko den arduraduna, diru kontuak eramango dituen pertsona eta bulegoan egongo den pertsona izango dira besteak beste, gure zerbitzuan parte hartuko duten langileen funtzioak.

Amaitzeko, **finantza baliabideen** kasuan, proiektua martxan jartzeko lehen aipatutako elkartean diru laguntzaz baliatuko gara, baita hileroko diru laguntzaz ere, langileon soldatak bermatu ahal izateko. Hortaz gain, aurrez aipatu bezala, familiek hilero ordainduko duten kuota ere erabiliko dugu gastuei aurre egiteko. Ordainketa bideei dagokionez, familiek hilero ordainduko duten kuota, kontu korrante bidez egingo da, ukreditu lineak erabiliz.